

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteartea, 2013ko uztailaren 23a. IX. urtea. 2.632. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



IGARCIA LANDA

→ **HITZA Txapelketaren egun handia.** X. HITZA Pilota Txapelketak eman du berea. Larunbatean jokatu zituzten Bidegoiango pilotalekuan finaleko bost partidak, eta jende asko elkartu zen partidez gozatzeko; Tolosaldeko 252 pilotari aritu dira aurtengo txapelketan, eta Arrillaga anaiak, Labaien-Gartziarena, Zubeldia-Olano eta Santxez izan dira azken garaipena eskuratu duten pilotariak. **6**

Tximista batek jota zauritu den haurrak hobera egin du

Tolosako Kirikiño aisialdi taldearekin txango bat egiten ari zen igandean 12 urteko tolosarra; Erietxean dago, eta «larritasunaren barruan egonkor eta kontziente» aurkitzen da. **2**

Alatzne Etxaburuak irabazi du Euskal Herriko Segatxapelketa

Zizurkildarrak herrian bertan jantzi zuen txapela, Astondoa eta Garinen aurretik sailkatuta. **7**

Gaika bereiztutako 71.350 kilo hondakin bildu dituzte atez ate

Anoeta, Alegia, Irura eta Zizurkilen hilabete du atez ateko hondakin bilketa sistema berriak; Tolosaldeko mankomunitateko ordezkariak «gustura» agertu dira lehen emaitzekin. **3**



AMASA-VILLABONA  Villabonako Udala

Santio jaietan ere euskaraz egin!

Herrialdeko hitzarmenen alde borrokan jarraituko du LAB sindikatuak

Estatuko hitzarmena aplikatu duten eskualdeko bost enpresen jarrera salatu du LABek

M. Iraola

Herrialdeko hitzarmena indargabetu, eta Estatuko hitzarmena aplikatu duten Tolosaldeko bost enpresen erabakia salatu du LAB sindikatuak. Azken lan erreformen ondorioz, «elite ekonomikoaren interesak nagusitu eta patronalak lan baldintzak desarautzeko erraztasun handiagoa» duela dio LABek.

Sindikatuak adierazi duenez, Mecanizados Garmendiola, Pasteleria Eceiza, Talleres Guibe, Zuhazki eta Tarte dira erabaki honen aurrera egin duten bailara bost enpresak. «Bakoitzean eredu eta erabaki desberdinak hartu dituzte: batzuetan lan baldintzak epe motz batera arte luzatzen dira; beste batzuetan soldata eta jardunaldia mantendu... baina denetan elementu amankomun bat dago: Estatuko hitzarmena aplikatu eta kontratazio berriei orain plantillan dauden langilei onartzen zaizkien onurak ez onartzea».

Sindikatu abertzaleak gogor salatu nahi izan du enpresa horien jarrera, «une latz hauetan lan baldintzen desarautzean aitzindari izatea erabaki dutelako». Bere partetik, LABek, «Euskal Herriko langile guztien negoziazio kolektiborako eskubideari, hitzarmen sektorial eta enpresa hitzarmenei eusteko lehentasunari heldu» nahi diotelarik jakinarazi du.

Negoziazio kolektiborako marka propioa aldarrikatu du LABek eta horretarako, «azken unera arte borroka egingo» dutela azal-

du dute, baina, uztailaren 5ean, Confedebaskek atzera bota zuen proposamena. Dena den, LABek argi dauka zein den jarraitu beharreko bidea: «akordio interprofesionala da bitartekoa, herrialdeko hitzarmenak estatuko hitzarmenen gainetik jarriko dituen, ultra aktibitatea luzatuko duena, eta negoziazio kolektiborako euskal esparrua mantentzeko balio politikoa handia izango lukeena».

Borrokan jarraituko dute

Bien bitartean, orain arte enpresetan aplikatu duten sektoreko edo enpresako hitzarmenak defendatzeko borrokan jarraituko duela adierazi du LABek: «ez dugu onartat ematen eszenatokia, eta hau aldatu ahal izatea egiten dugun indarraren ondorio izango da. Gatazka iraunkorrak bermatuko digu irtenbidea».

Borrokaz gain, bide judiziala ere erabiliko duela jakinarazi du LABek: «langile guztiek argi izan behar dute edozein komunikazio jasotzen dutenetik 20 egun bakarrik dituztela erreklamazioa egiteko».

Halaber, lan erreformaren aplikazioak sortzen dituen ondorioak, «lan gatazka soilak ez direla» salatu du sindikatuak: «Sakonagoa da. Arazo politiko eta sozial baten aurrean gaude, eta instituzioek inplikatzeko jarraitu behar dute. Hori da modu zuzenean Gipuzkoako Diputazioak Adegirekin harremanak apurtuz egin duena».

Borroka horretarako, gainontzeko sindikatuen laguntza ezinbestekoa izango dela azpimarratu du LABek: «CCOO eta UGTk argi izan behar dute edukirik gabeko hitzarmenak sinatzean ez dagoela irtenbiderik». Era berean, ELAri dei egin dio sektoreko hitzarmenen defentsa lanetan hasi daitezen, «horiek baitira langile guztiak babesteko tresnak».

Hobera egin du Petrechema mendian tximista batek jota larri zauritu den tolosarrak

Kirikiño Aisialdi Taldearekin txango bat egiten ari zen, eta Zaragozako erietxe batean dago ingresatuta

Mikel Iraola Tolosa

Igandean tximista batek jota larri zauritu zen 12 urteko tolosarraren osasun egoerak hobera egin du, eta tratatu duten medikuen arabera, «larritasunaren barnean, egonkor eta kontziente» dago.

Hirukide Ikastetxeko Kirikiño Aisialdi Taldeak urtero Belagoan (Nafarroa) antolatutako ohi duen kanpamentuan zegoen zauritutako haurra. Huescako Anso bailaran zehar hiru eguneko txango bat egiteko asmoz irten zen 30 hurreko talde bat larunbatean Belagoako kanpamentutik. Lehen egunean Belagoa eta Zuriza bitarteko ibilbidea egin zuten.

Ezbeharrak, berriz, igande arratsaldean gertatu zen, 14:40ak aldera. Zurizatik Petrechema mendira igo, eta gainean zeudela, tximista batek jo zituen haurrak. «Guztiok nabaritu genuen kalantza, eta belarrietan soinuak jarri zitzaigun» azaldu du aisialdi taldeko arduradunetako batek. Berrezi, P.U.M., 12 urteko tolosarra jo zuen tximistak.

«Igoerari ekin aurretik eguraldi ona zegoen. Hodeien bat ikusten zen urrutian, Hiru Erregeen Mahaian, baina besterik ez. Petrechemara igo eta orduantxe hasi ziren tximistak. Guri bakar bat erori zitzaigun, gainontzekoak, urrutian erori ziren. Ez zigen eririk ere egin. Momentuko zerbait izan zen, ezustean harrapatu gintuen» azaldu dute arduradunek.

Monitoreek segituan eman zie-



Ansoko bailaran dagoen Petrechema mendiak 2.371 metro ditu. HITZA

ten gertakariaren berri larrialdi zerbitzuei, eta Huescako Goardia Zibila, Jacako mendiko erreskateetako espezialista taldea eta medikuak gerturatu ziren tolosarrak zeuden eremura. Handik, Zaragozako Miguel Servet erietxera eraman zuten larri zauritutako haurra helikopteroz.

Osasun zentroak jakinarazi duenez, tolosarra Zainketa Intentsiboetako Unitate (ZIU) pedriatikoan da ingresatuta, eta tximistaren eraginez, erredura elektrikoak ditu. Diagnostikoak hobera egin du azken orduetan, eta gaur proba gehiago egingo dizkiote. «Kanpamentura itzultzeko gogoia duela» adierazi dute medikuek.

Bestalde, beste sei haur ere eraman behar izan zituzten Hechoko

osasun zentrora zorabio eta belarriko minekin, baina onik daude eta kanpamentura itzuli ziren igande arratsaldean bertan.

Normaltasunera itzuli nahian

Oraindik sustoa gorputzean zutela, Zurizan igaro zuten igandeko gaua. Atzo, berriz, normaltasunera itzuli ziren haurrak. Zurizatik Belagoako kanpamenturako bidea egin zuten eta ohiko ekintzak egiten jarraitu zuten. «Gertatu zitekeena askoz ere okerragoa izan zitekeela ikusita, pozik egoteko arrazoiak ere baditugu. Susto handi bat izan da» adierazi dute arduradunek. Ia bi aste kanpaldiaren ondoren, igande honetan itzuliko dira haurrak euren etxetara.

↓ Iragarki laburrak

SALGAI

Zezena salgai. Limosin arrazako eta paperak egunean dituen 7 urteko zezen ixkoa salgai. Oso ona da eta 600 kilo inguruko pioxua du kanalean. Interesatuak, deitu 656 410280 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

Txakurra. Arratoi-txakur arrazako txakur gorri-marroixka galdu zen duela bi aste, Hernialdeko Olaza bailara inguruan. Zerbait jakin dezakeen edonork,

deitu dezala 943 653525 telefono zenbakira.

LAN ESKAINTZA

Etxeko lanak. Emakume euskalduna behar da, haurra goizez eskolara eraman eta asteen lau orduz etxeko lanak egiteko. Interesatuak, deitu 622 163774 telefono zenbakira.

ESKARIA

Erremolkea. Autoarentzako bigarren eskuko erremolkea erosi nuke. Neurriak, 1,5 metro eta

1,10 metro artean. Interesatuak, deitu 649 510941 telefono zenbakira.

LAN BILA

Etxeko lanak. 08:00etatik 14:00etara, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperimentatzen emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea dauka. Deitu 943 696882 edo 606 521992ra.
Hauze Garbitasunak. Garbiketa orokorrak: etxeak, bulegoak... Aurrekontua eskatzeko, deitu 68115 24 94ra.



**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Atez ateko hondakin bilketa sistema berria lehen emaitzak ematen hasi da Tolosaldeko herrietan. I. URKIZU

Lehen hilabetean 71.350 kilo hondakin bildu dituzte gaika

Anoeta, Alegia, Irura eta Zizurkilan hilabete bete du atez ateko hondakin bilketa sistema berriak

Tolosaldeko Mankomunitateak lehen datuak eta balantzea plazaratu ditu

Asier Imaz

Tolosaldeko Mankomunitateak atez ateko hondakin bilketaren lehen datuak eman ditu. Alegia, Anoeta, Irura eta Zizurkilan 71.350 kilo bildu dituzte sistema berriarekin lehen hilabetean, eta mankomunitateko ordezkariak gustura agertu dira lortutako emaitzekin: «Esker oneko hitzak besterik ez ditugu lau herri hauek biztanleentzat. Atez atekoaren bitartez, birziklapen datuak iraultzen ari gara lehen egunetik, eta hori, herritarren parte hartze-ari esker soilik lortu dela argi dugu».

Tolosaldeko Mankomunitate-tik azaldu dutenez, lau herri horiek, Amasa-Villabonarekin batera, «zero zabor norabidean mar-txan dira, eta emaitzak, jasotzen hasiak gara dagoeneko». Ahalik

eta gehien birziklatzen baldin bada, zabortegira ahalik eta gu-txien eramaten dela gogoratu dute Tolosaldeko Mankomunitate-tik, eta helburu hori lortzen ari direla esan dute.

Bilketa datuak aztertuz

Anoeta, Irura, Alegia eta Zizurkilan atez ate bildu den hondakinen ia erdia organikoa izan da. Orain arte, organikoa konpostajerako edo edukiontzi berdera botatzen zen. Herri horietan, orain, konpostajearen aukerarekin batera, birziklatzearena dago: «Orain arte organikoa zabortegira eramaten zen, eta ikusi dugun bezala, akats handi bat zen. Etxeetan sailkatu ondoren, ongarria egiteko erabiltzen da, eta ez da zaborte-gian usteltzen uzten».

Tolosaldeko Mankomunitateko ordezkarien esanetan, oroko-

rrean, «birziklatze datuen iraultzea» ikus daiteke emaitzetan: «Eskualdeko datuetan, %30aren azpitik kokatu izan dugu birziklatze tasa, baina atez atekoa mar-txan den herri hauetan, irauli egin da guztiz, eta errefusa, kopu-ru oso txikia dela ikusi ahal da».

Tolosaldeko Mankomunitate-ak birziklapen datuak handitzen jarraitu nahi du lau herri horie-tan, eta oraindik atez atekoa praktikan jarri ez duten herritar-rei dei egin die: «Alde batetik, euren hondakinak kubo bidez eta sailkatuta ateratzeko, horrela, datu hauen arrakastan ere parte izanez. Eta bestetik, gure herriak txukun mantentzeko eskaera egin nahi dugu; herritar guztien-ganako errespetuan oinarrituz».

Amaitzeko, «datu hauek horre-la eskatzen duten aitzakian», her-ritarrei eskerrak eman nahi izan dizkie mankomunitate-tik, orain arteko bidean herritarrek subjek-tu garrantzitsuenak izan direla esanaz. Aurrerantzean ere horre-la izatea espero dute, eta bide ho-rretan jarraitzea eskatu dute: «Herritarrei esker, oso ondo egi-ten ari gara, eta jarrai dezagun horrela. Zorionak benetan guz-tioi!».

↓ Datuak

GAIKA

■ Ontzi arinak:	%16,58
■ Organikoa:	%47,90
■ Papera-kartoia:	%20,21
■ Errefusa:	%15,30

KILOKA

■ Ontzi arinak:	11.830
■ Organikoa:	34.180
■ Papera-kartoia:	14.420
■ Errefusa:	10.920

GUZTIRA: 71.350

OHARRA

■ Datuen inguruan, atez ate bil-tzen dena bakarrik barnebiltzen dute zenbateko horiek, beraz, beira datu horietatik kanpo ge-ratu da. Baita, eredu berriari uko egiten dioten herritarrek kalean uzten dituzten zabor poltsak ere. Beraz, zenbakiak ateratze-ko unean, atez ate biltzen diren kantitateak hartu dituzte kon-tutan, baita komertzioenak eta ekarpen guneetara eramanda-koak ere.

Patxi Amantegiren elkarrizketa sarean dago zintzilikaturik

Tolosaldea Txukuneko bozeramaileari zuzeneko elkarrizketa egin dio 'Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza'-k

A. Imaz

Iragan ostegunean Patxi Aman-tegi Tolosaldea Txukuneko boze-ramaileari zuzeneko elkarrizketa egin zion TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak. Ira-kurleen galderak erantzun zituen Amantegik, tolosaldea.hitza.info webgunean zuzenean. Tolosal-dea Txukuneko bozeramailearen elkarrizketa ikusterik izan ez zue-nak, bideoa webgunean dauka zintzilikaturik. Amantegik atez atekoaren aurka hitz egin zuen, eta bosgarren edukiontzia defen-datu zuen sutsuki. Sutsuki, galde-ra gehienak ere modu horretako-ak izan zirelako.

Eskerrak

Mezu elektroniko bidez eta twi-ter bidez 40 galderatik gora jaso genituen Hitzako erredakzioan. Guzti-guztiei eskerrik beroenak. Elkarrizketak ondoren soka lu-zea izan du sare sozialetan, eta iri-tziak emateaz gain, elkarrizketa formato horren inguruko haus-narketa eta ideiak egon dira, guz-tiz kontuan hartzeak. Eskerrik asko!

■ Bideoa. Patxi Amantegiri egindako elkarrizketa 'tolosal-dea.hitza.info' webgunean dago. Qr kode honen bidez ere ikus daiteke zuzeneko elkarriz-keta.



XVII. HITZA Udako argazki lehiaketa

Sari mundialak!

Bidali zure argazkia
thargazkiak@hitza.info
helbidera!

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA








Jai giroa
nagusitu da
asteburuan

Festa giroa jarri dute Tosalsaldean nahiz Itzaltaldean iragan asteburuan izan diren ekitaldiek. Santamoha suozan jakal ospatu dituzte, Ateakeltat gaztetxoek euren urteurrena, eta Villabonan, festak hastear direlarik, Garagardo Azokak jai giroa jarri zuten. Bestalde, dantza eta futbola izan da Udaberri eta Bonberene ren eskutik, eta azoka berezia Box A elkarteak antolatuta. Mendi irteera egiteko baliatu dutenak ere izan dira, Alpino Uzturrekoak kasu.

Asteasuko Santamania auzoan Tranzapuz igo eta jaitsi da, eta tarte horretan, jaietan murgildu dira auzotarrak. Ostegunean ekin zieten festei, eta hamaika ekitaldi gozatu ahal izan dute, jan-edanak, bertsolariak, trikitilariak zein herri kirolek hutsik egin gabe. Herenegun datorren urtera arte esan zieten gainalde paregabean kokaturiko auzoko jaiak.

Leizakoa Ateakabeltz Gaztetxea bere aurtzigarren urteurrena ospatzen ari da, eta larunbata izan zen egun nagusia. Goizean Suabi-zista zesta punta xapaketa jokatu zuten lau bikotek eta gero bazkaltzeko 20 pertsona inguru elkartu ziren gaztetxean bertan. Ostiralean, berriz, 25 lagun elkartu ziren afarian. Bazkariaren ostean poteoan irten ziren, joko eta musika eta guzti, eta gaua zuzeneko musikak bete zuen. Urteurrenoko ekitaldiek jarraitzen dute oraindik, eta etzai, masaje talerra emango du leiztar gazte bakoitzak.



- Parte hartzeko deitu: 902-82 02 40 edo sartu tolosaldea.hitza.info helbidean ZOKETAK atalean



Luis Galarraga antolatzaileak aurtan aukeraturako materiala azpimarratu du, eta pilotariak oso gustura aritu direla dio. I. GARCIA LANDA

Tolosaldeko 252 pilotari aritu dira, aurtengo HITZA txapelketan

Pasa den larunbatean Bidegoianen jokatu zituzten maila guztietako finalak, eta frontoia bete egin zen

Itzea Urkizu

Tolosaldeko gaztetxoan artean kirola, eta bereziki pilota zabal-tzeko helburua du, besteak beste, HITZA pilota txapelketak; jomugak bete dituztela esanez, gustura dago Luis Galarraga antolatzaileak, aurtengo Tolosaldeko 252 pilotari aritu baitira txapelketan.

Pasa den larunbatean jokatu zituzten maila guztietako finalak, Bidegoiango frontoian, eta kantxako ikuskizunaz gozatzeko, bete egin zen frontoia.

Guztira bost mailatako finalak jokatu zituzten, eta benjamin B mailan txapeldunak Orexako Arrillaga anaiak izan ziren, Belauntzarren eta Tello larraulda-rrei 16-5 irabaziz. Benjamin A mailan, berriz, Labaien eta Gartziarena berastegiarrek 16-4 irabazi zuten Ugartemendia zizurkildarraren eta Muñoa adunarra-ren aurka.

Alebinetan, Zubeldia eta Olano altzotarrak izan ziren txapeldunak, Altuna eta Lopetegi tolosa-rrei 16-4 irabaziz. Maila bat gora-goko finaletan, infantiletan, txapeldunak Oiarbide alegiarra eta Aizpitarte altzotarra izan ziren, eta 18-11ko emaitzarekin gailendu zitzaizkien, Zubeldia amezketarrari eta Osa urnietarrari. Azkenik, kadeteen mailako finala Aizpuru asteasuarrak irabazi

zuen, Santxez ibartarraren aurka, 18-8ko emaitzarekin.

Aizpuru denboraldi bikaina

18 eta 8ko emaitzarekin kadeteen mailako txapeldun suertatu zen, larunbatean, Julen Aizpuru asteasuarra. Hasiera batean, partida zailagoa espero zuen, eta lehen lau tantoak Santxez aukariak egin bazituen ere, segituan hartu zuen mendean partidaren erritmoa.

Buruz buru aritu zen maila bakarra izan zen kadeteena, eta lau t'erdian jokatu zuten, gainera. Txapeldunak gustura azaldu zuen bere burua, norgehiagoka amaitu eta gero: «Txapelketa osoan barrena ondo aritu da Santxez, eta partida gogorragoa espero nuen, baina gaur oso gustura aritu naiz».

Norgehiagoea 4-0ko markagailuarekin hasi zen, Santxezen alde, baina Aizpuru lau tantoen ondoren bere jokoari heldu eta partidari buelta eman zion, besteak beste, sakea aprobetxatuz: «Buruz buru, sakea duenak min handia eman diezaioke aurkariari, eta partida hasieran ez naiz ondo aritu; hankak ezin nituen ondo jarri, frontoi hau oso irristakorra baita, eta beraz, errestoa kosta egin zait hasieran. Gero, ordea, sakea berreskuratut dudanean, buelta eman diot jokoari». Horrela, sakea berreskuratuz, pilota atzera botatz eta aurkaria atzean zegoela dejada erabiliz egin zituen Julen Aizpuru, tanto gehien.

Denboraldi bikaina osatzen ari da asteasuarra, izan ere, HITZA txapelketaz gain, lehenago ere

beste bi txapelketa irabazi ditu: «Aurtengo gustura nabil, bai, eta orain Nafarroan hasiko den beste txapelketa batean ere parte hartuko dugu. Honez gain, Trasernio txapelketako finalerdietara iritsi gara, eta eaz zergatzen den, partida gogorrek datoz eta».

Herri txikiak pilota biziberrituz

HITZA txapelketako antolatzaile Luis Galarragak balorazio positiboa egin du aurtengo txapelketaren inguruan: «Parte hartu duten taldeetako ia arduradun guztiak finalean izan dira, eta beren iritzia oso ona izan da. Txapelketa hasieran Tolosako mutikoen hutsunea nabaritu zen, baina gainerakoan guztia giro oso onean joan da, eta oso partida orekatu eta politak ikusteko aukera izan dugu».

Materialari dagokionez ere,

gustura azaldu da Galarraga: «Aurtengo asmatu dugula iruditzen zait, pilotariak gustura jokatu dutela ikusi baitugu; partidak pilotan jokatzeko irabazi edo galdu dituzte. Hau dela eta, finalerako ere maila oso politoko norgehiagokak iritsi dira. Oro har, niri ikaragarri gustatu zaizkit txapelketako partidak eta markagailuan zenbaitetan tarte handi samarrak izan diren arren, maila polita eman dute guztiak».

Antolakuntzaren lekukoa jende gehiagorengana zabaltzeko gogo ere azpimarratu du Luis Galarragak: «Datorren urtera begira txapelketa antolatzen jarraitzeak merezi duela uste dut, eta nik antolakuntzaren ardura pixkana-pixkana utzi nahi dudanez, beste batzuk ardura hori hartzen joatea egokiena dela uste

dut. Izan ere, ez da ona izaten pertsona batek ardura bera urte askotan bere gain izatea; pertsona horrek antolakuntza uzten duen unean, guztia ezerezean geratzeko arriskua izaten da. Beraz, herri txikiak pilotari eskoletako arduradunei eskatuko nieke, ardura hori hartu eta txapelketa hau antolatzen jarraitzea».

Bide honetan, Luis Galarragak herri txikiak pilotari ematen dioten indarra nabarmendu du, eta herri txikiak bizirik-pilota bizirik binomioa hizpide izan du: «Oso ondo lotuta daude herri txikiak, eta pilota bizia. Herri txikiak eskoletatik ateratzen diren pilotariarekin, Tolosaldeko 252 pilotariak parte hartu dute aurtengo txapelketan, eta hori oso ona dela iruditzen zait. Gainera, finaleko parte hartzea zabala izan da, eta eskualdeko herri asko hartu ditu».

Azkenik, txapelketaren helbururik behinena bete dutela nabarmendu du: «Azken finean gure helburua gaztetxoek kirola egitea da, eta bereziki pilotan aritzea. Horrez gain, frontoiak betetzea ere gure jomugetakoa bat da, eta bete dugu. Polita da, beraz, bai jokatzeko dutenentzat, eta baita ikustera etortzen direnentzat ere».

Finaleko emaitzak

Benjaminak B	
Belauntzarren-Tello	5
Arrillaga-Arrillaga	16

Benjaminak A	
Labaien-Gartziarena	16
Ugartemendia-Muñoa	4

Alebinak	
Altuna-Lopetegi	4
Zubeldia-Olano	16

Infantilak	
Zubeldia-Osa	11
Oiarbide-Aizpitarte	18

Kadeteak	
Aizpuru	18
Santxez	8



Aizpuru izan da kadeteen mailan txapelduna, eta denboraldi bikaina osatzen ari da. I. GARCIA LANDA

[illegible]



≈ **25°**
≈ **19°**

GOIZA LAINTUTIA
ARRATSALDEA LAINTUTIA
BEROENA 26°
HOTZENA 19°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibaraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko ideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa



KILOMETROEN ALDEKO PARTIDA

Larunbatean jokatu zuten Beasainen Kilometro-ak jaiaren aldeko futbol partida Realak eta Okzitaniako Tolosa taldeak. Besteak beste, Jokin Aperiari bai Realeko lehendakaria, Arantza Manterola Ikastolen Elkarteko lehendakaria eta Unai Igartua

KMK13ko koordinatzailea izan ziren, eta elkarri opariak banatu zizkieten. 1.800 pertsona joan ziren ikustera, eta partida banako emaitzarekin amaitu zen. Haurrek eta helduek, Realeko jokalariekin argazkiak ateratzeko aukera izan zuten. HITZA

Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

● ● ● ● ● **agurrak**

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Egunkoia eta gauekoa: Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.
■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Mauka berria

**12 botilako
Herrigoia 2012
ardo kaxa salneurri
paregabeen**

COMPANION ARRIETA BODEGAK
LANTZIEGO 01308 - ARABA
Tel.: 658 737 625
info@bodegascompanionarrieta.com
www.bodegascompanionarrieta.com

Prezioa 22€ Delegazioetan

Prezioa 32€ Etxean

www.mauka.eu

berria taldea

**LIKIDAZIOA
ERREFORMEN
GATIK**

**Euskal Herria, 22
• IBARRA •
943 67 02 44**

Elketa Jatetxea

**Uztailak 24 gauean
IREKITA**

**Billabonatarrek festa
zoriontsuak igaro ditzatela!**

San Miguel bailara, 2 • Hernialde
943 65 21 16 • elketajatetxea@hotmail.com
www.elketa.com